



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/01/17

Gizartean baztertuta geratzeko arriskuan dagozan pertsonentzako eguneko zentroak zabalduko ditu Aldundiak Barakaldon, Durangaldean eta Getxon

Teresa Laespada Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasunerako diputatu andrea Batzar Nagusietara etorri da gaur, EH Bilduk eskatuta, Bizkaiko Gizarte Zerbitzuen Mapearen garapenaren barri emoteko, bere arloari jagokonez. 2017ko hedapenetik sortuko dan antolakuntza barriari erantzun ahal izateko, ekitaldi honetan beste hiru zentro zabalduko dirala iragarri dau Foru arduradunak. Barakaldok eta Durangaldeak “urteko lehenengo seihilekoan” izango ditue arretarako baliabide barriak, gizartean baztertuta geratzeko arriskuan dagozan pertsonen beharrei erantzun ahal izateko. Zentro horreei beste zentro bat gehituko jake Getxon, “urteko bigarren seihilekoan”.

Arlo horretako Aldundiaren baliabideak egokitzeko asmoz, bere sailak gauzatuko dituan beste jarduketara batzuk zehaztu ditu Laespadak. Holan, 2017an, trazautako ibilpide orrian oinarrituta, “plazen foru titulartasuna eta erantzukizun publikoa indartzearen” aldeko apustua egingo da, eta zerbitzuak egokitzeko ditu, “personengan zentrautako arretea izan daien, baliabidean zentrautakoa baino gehiago”. Aldundiak lehen eta bigarren arreta zerbitzuen arteko koordinazioa be bultzatuko dau, “trantsizino arinagoa lortzeko”. Koordinazioaren arloan, “osasun, etxebizitza eta enplegu sistemen artean, batez be, baina baita gizarte arloko zerbitzuakaz (emakumea, umeak, urritasunen bat daukien pertsonak eta mendekotasuna) hartu emonak eta loturak garatzeko” behar egingo dabela adierazo dau Laespadak.

Kasu bakotxean koordinazioa “indartzea” eta erreferentziazko profesionalak gizarteratze prozesuetan beteko dauen lekua izango dira beste helburu batzuk, eta baita “genero ikuspegia garatzea” be. Ekitaldi honetan egin beharrekoen artean, Aldundiak ezarri dituan proposamenen artean “esku-hartze psikosoziala indartzea” eta “adikzioen arloko egoitzetako plazak murriztea eta plazak esku-hartzeko erespide terapeutikoak kontuan izanda denporalizatzea” dagoz. Bukatzeko, Gizarteratze foru sailak, gizartetik baztertuta dagozan eta buru gaixotasun larria daukien pertsonen laguntzeko plaza gehiago jarriko ditu martxan.

Laespadak, Gizarte Zerbitzuen Legean eta Kartera Dekretuan aurreikusten diran zerbitzuen mapa zelan geratzen dan azaldu deutse batzarretako taldeei, eta baita bagilaren 21ean Bizkaiko Gizarte Zerbitzuen Erakundearen arteko Mahaian onartu zan guneen banaketa barria be. Mahai parekide hori udalen eta Aldundiaren ordezkariak osatzen dabe, eta bere helburua lurraldean zerbitzuak ahalik eta ondoen zabaltzea da. Gizartetik baztertuta dagozan pertsonen arloan, Bizkaiak 132 plaza ditu sobran bere eguneko zentroetan. Une honetan 623 plaza ditu, eta urte honetarako egin dan proiektzioa 491koa da. Jokaereagaz erlazionautako arazoak dituen eta gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan dagozan pertsonentzako, denpora gitxi lehenago ospitalea itzi dabenentzako edo abstinentzia sindromea daukientzako baliabideei jagokonez, barriz, 14tik 19ra zabaldu beharko dira dagozan plazak. Gainera, izaera pertsonaleko, sozialeko eta harremanetako arazo larriak dituen eta gizartetik baztertuta dagozan pertsonentzako beste 45 plaza sortu beharko dira.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

Josu Unanue EH Bilduko bozeroaleak kritikatu egin dau zerbitzu “asko” Bilbon zentrauta egotea, eta informazioa hirugarren sektorerara “zabaltzea” eskatu dau. Zalantzan jarri dau Laespadaren saila zerbitzu barriak aurton bermatzeko gai izango ete dan, aurrekontua txikiagoa dalako. “Bermatuta egongo dira”, erantzun deutso diputatu andreak.

118 ERREFUXIATUK JASO DABE ARRETEA 2016AN

EH Bilduren beste interpelazino bati erantzunez, Laespadak igaz Bizkaian arreta jaso eben errefuxiatuen inguruko datuak emon ditu. “Gerratik, gosetik, pobreziatik eta heriotzatik iges joiazan 20 nazionalidadeko 118 errefuxiatuk” jaso eben harrerea lurraldean, Gohabe foru programaren babespean. Laespadak azaldu dauenez, beste 254 pertsonari arreta eskini jake gizarte-laneratzekeko orientazinarako jarduketetan.

“240.000 euroko” inbertsinoa izan dauen programearen helburua errefuxiatuen arreta integrala dala gogoratu dau Laespadak, eta horretarako hainbat erakunderen laguntzea izan dau (Gurutze Gorria, CEAR-Euskadi, Caritas eta Ellacuria Fundazioa). Hainbat moztetako prozesuak eta esku-hartzeak izan ditu, bizilekua eskintzetik laguntza ekonomikora, hezkuntzako, gizarteko eta lan munduko laguntzatik igarota.

Gohabe programa horren esku-hartze integralari, GGKEen bitartez Larrialdietako eta Giza Laguntzako eta Lankidetzako proiektuetan finantzau dan beharra gehitu behar jake. 2015 eta 2016 urteetan programa horreetara “milioi eta erdi euro baino gehiago” bideratu dira aurrekontuetatik.

Errefuxiatuei jagokezan Aldundiaren jarduketa horreei, sentsibilizazinaro eta herritarren partaidetzara zuzendutako kanpainak gehitu deutsez Laespadak. 2015 eta 2016 urte horreetan “300.000 euro” baino gehiagokoak izan dira. Holan, #Prestgaude programea eta Gizartegune ‘Errefuxiatuak. Euren eskubideak. Gure eginbeharrak’ jardunaldia azpimarratu ditu.

Batzarretako talde guztiek “modu positiboan” baloratu dabe Gohabe programea martxan jarri izana, baina EH Bildutik egoera barrira “egokitzeko” aukerea aztertzea eskatu da, programea sortu zanean Bizkaiak 1.000 errefuxiatu jasotea aurreikusten ebalako, gehienak Siriatik etorritakoak. Koalitzino abertzaleko bozeroalearen eretziz, programea, lurraldera “ailegetan diran guztiei” harrerea eskintzera bideratu behar da. Gohabe “nahikoa da dituan hartzaileentzat”, erantzun deutso Laespadak, beste soslai batzuetara egokitzen diran beste baliabide batzuk dagozala gogoratu.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
17/01/2017

La Diputación abrirá centros de día para personas en riesgo de exclusión social en Barakaldo, Durangaldea y Getxo

La diputada foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, Teresa Laespada, ha comparecido hoy, a petición de EH Bildu, para informar del desarrollo del Mapa de Servicios Sociales en Bizkaia en lo que compete a su área. Para cumplir con la nueva organización salida de su despliegue en 2017, la responsable foral ha anunciado que se abrirán tres centros nuevos a lo largo de este ejercicio. Barakaldo y Durangaldea contarán con nuevos recursos asistenciales para responder a las necesidades de las personas en riesgo de exclusión social “en el primer semestre del año”. A estos, se les unirá un tercer centro en Getxo, “en el segundo semestre”.

De cara a ajustar los recursos forales en este ámbito, Laespada ha concretado otras actuaciones que deberá de llevar a cabo su departamento. Así, en 2017, en base a la hoja de ruta trazada, apostará “por reforzar la titularidad foral de las plazas y la responsabilidad pública”, y adecuará los servicios “para que impriman una atención centrada en las personas antes que en el recurso”. La Diputación impulsará también la coordinación entre los servicios de atención primaria y secundaria “para posibilitar transiciones más ágiles”. En el capítulo de la coordinación, Laespada ha manifestado que trabajarán “por desarrollar relaciones y conexiones entre sistemas de salud, vivienda y empleo, preferentemente, pero también con los servicios sociales (mujer, infancia, discapacidad y dependencia)”.

“Robustecer” la coordinación en cada caso y el papel del profesional de referencia en los procesos de inclusión social, será otro de los objetivos, así como “desarrollar un enfoque de género”. Entre los deberes para este ejercicio, la Diputación se ha propuesto, además, “reforzar la intervención psicosocial” y “reducir plazas residenciales en adicciones y temporalizar las plazas bajo criterios terapéuticos de intervención”. Por último, el área foral de Inclusión Social “incrementará” las plazas para apoyar a personas con enfermedad mental grave en situación de exclusión social.

Laespada ha explicado a los grupos junteros cómo queda el mapa de los servicios previstos en la Ley de Servicios Sociales y en el Decreto de Cartera, así como la nueva zonificación aprobada el 21 de junio en la Mesa Interinstitucional de Servicios Sociales de Bizkaia, una mesa paritaria compuesta por representantes municipales y forales que vela por el cumplimiento del despliegue óptimo de los servicios en el territorio. En el ámbito de las personas en exclusión social, Bizkaia tiene un excedente de 132 plazas en sus centros de día. Dispone actualmente de 623 plazas y la proyección para este año se queda en 491. En cambio, deberá aumentar de 14 a 19 plazas los recursos para personas en riesgo de exclusión social con trastornos de conducta, alta hospitalaria reciente o síndrome de abstinencia. Asimismo, deberá crear otras 45 plazas para personas en situación de exclusión social con graves deterioros de carácter personal, social y relacional.

El portavoz de EH Bildu, Josu Unanue, ha criticado el hecho de que “muchos” servicios estén centralizados en Bilbao, y ha pedido “extender” la información al tercer sector. Ha dudado de que el departamento de Laespada pueda garantizar los nuevos servicios este año cuando dispone de un presupuesto inferior. “Estarán garantizados”, le ha respondido la diputada.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

118 PERSONAS REFUGIADAS ATENDIDAS EN 2016

En otra interpelación de EH Bildu, Laespada ha ofrecido datos sobre las personas refugiadas atendidas durante el pasado año en Bizkaia. Un total de “118 personas refugiadas, de 20 nacionalidades”, fueron acogidas en el territorio "huyendo de la guerra, el hambre, la miseria y la muerte" bajo el paraguas del programa foral Goihabe. Laespada ha explicado que, además, se han atendido a 254 personas en actuaciones de orientación socio-laboral.

Laespada ha recordado que el objetivo del programa, que ha contado con una inversión de “240.000 euros”, es lograr la atención integral de las personas refugiadas, para lo que se ha organizado con la colaboración de varias entidades (Cruz Roja, CEAR-Euskadi, Cáritas y Fundación Ellacuría) y con procesos e intervenciones de diversa naturaleza, desde lo residencial a lo económico, pasando por lo educativo, social o laboral.

A la intervención integral de este programa Goihabe se ha sumado la labor financiada a través de las ONGDs en proyectos de Emergencia y Ayuda Humanitaria y Cooperación, que han supuesto en los años 2015 y 2016 un monto presupuestario de "más de millón y medio de euros".

A este repaso a las actuaciones forales en materia de personas refugiadas, Laespada ha añadido las campañas de sensibilización y participación ciudadana, que durante estos mismos años 2015 y 2016 han sumado "más de 300.000 euros". En este sentido, ha destacado la campaña #Prestgaude y la jornada Gizartegune ‘Personas Refugiadas. Sus Derechos. Nuestros deberes’.

Todos los grupos junteros han valorado “positivamente” la puesta en marcha del programa Goihabe, si bien desde EH Bildu han reclamado que se estudie “adaptarlo” a la nueva situación, ya que cuando se creó el programa, Bizkaia esperaba la llegada de 1.000 personas refugiadas, en su mayoría procedentes de Siria. Para el portavoz de la coalición abertzale, el programa debe reorientarse a la acogida de “todos los que llegan” al territorio. Goihabe es “suficiente para las personas a las que se dirige”, ha respondido Laespada, recordando que existen otros recursos que se adaptan a diferentes perfiles.